

E. Bidegain
Arana - Gouri

Lutetia



Arana - Gouri

Abrana-Goiri

E. Bidegain
Grand téméraire
Pauvres

Airbiri solara: (1865 - 1903)

~~Lehera~~: Eskual-Herria kiltzerat don...

~~Lehera~~ zatia: ~~Argitia~~.

I Argiari buruz.

II Argia.

III Lanem.

IV Larrazabal.

V Guduan.

VI Eskualdun batzokia.

VII Sabiri eta gazteak.

VIII Sabiri eta Karlistak.

IX Eskuararen alde.

X Sabiri deputatu.

XI Sabiri enkontza.

XII Sabiri eta Roosevelt.

XIII Sabiri espainoltzen?

XIV Sabiri heriotza.

XV Eskual-Herriarum piztea.

Sigarren zatia: Gogoa.

2.1.1934

Herria lagun gazte talak egin lan ederak dauzkan hamasei buru edo kapitulua.
Lan horiek Eskual-zaleen eskutik ukana du duela bizpahiru urte sari handi bat, zeren estuara marrota eta garbieran egina den...

Gogotik ager-arazten dugu "Herria" hunkan, gutxi bartakite nor zer izan den Sabir Arana-Gorri.

Denek ez dute beren gogokoa gizon arhatu horiek egin duen lan handia; baina nehorik ez du gutxiesten ahal. Denek behar dute arthortu bere moduan Eskual-Herria maithatu duela, ez hilgez eta bihotzez bakharrik bainan hauek alde lan eginez, paimatuz eta bizia berri emanaz.

Nork ez du kolato norbait guretsiko; nor ez da buruhastuko hastaz oshoituz?

On da Eskualdun guzirik jakin dezaten Eskualdun suhar horren berri!

Milesker E. B. gure aditxik de gazteari egin duen lan ederaz; agian, premu horiek ukhanen ditu hainitz haurrude; kasta onokoa da, gisa guzietard.

ku gas

Cou est
est part

Aintzin-solasa 2

Eskual-Herria kiltzerat doa...

1833^a da ... Auna mendien hegaletan, mendeak eta mendeak, garbi eta azke (libre) bigi izan ondoren, Herri bat, Eskual-Herria, politikoki-politiki kiltzerat doa... Etaiek bi pusketan ezarria dute. Frenkate diote arrotzek eskual^{er} odol beroren gaina, Bidass-ako ibaira. Mendietako herro-kez egin bizkar-kezurra bilakaturia da anaien arteko muga. Gehirgo dena, huna bi zetitara -Paparriko lurre! Hiru eskualde Frontizian, lau Espainian, zoin den urragarri Eskualdunen filanta!...

Azkatasuna (liberté) galduta, lurre puskatua, erri handi da Eskual-Herria... Eta bizkitartean, ez da gaitz horietarik hilen... Gogora azke deno, ugitan dorprenalt ez du zapatzen gizona. Gogora du erri Eskual-Herriak! Eskualdunek beren nortasuna ahanzten ari dute. Jaurri dira beren gaitzari. Gibel-aldea arrotzaren ostikoan jasantzeko egina dela daukate. Noizean behin xutitzen dira gizon suhar batzu eskual^{er} zuzimen alde, hala nola Matatas apriza Xuberoan: laster garbitzen ditu bahitzaleak, eta herritarrek, ardiak orzantzarrekin bezala, burua apalt dande zigarrikeria horien aintzinean!...

Ipar-aldean, 1789^{an} Frantziak errantsi zituen eskual zuzenak. Hego-aldean bakean bizi dira orainkoan Eskualdunak, nahiz ez diren azkatasun osoan jabe. Boitzenka gizon batzue izendatzen dituzte buruzagien biltzarreko. Biltzarrek moldatzen dute legeak: Espainiak ez du deus ikusatekorik heien goiti-beheitatan. Juardak Ebro deitu ibaiaren deude: zergak ez dira Eskual-Heritik ateratzen: gasteak ez dute gudari juaterik: zombait gizon dira bakorrik kantatuaik bagterren xuxentzera behar orduan... Gernikako arbolaren itzalean, gaitzako biltzarrek egiten dituzte Bizkaitarrek. Ez da han Hitler-ik ez Franco-rik: bakotzak bere gogoa zabaltzen du beldurrik gabe, eta zero, elgar adituz hartzen dituzte xedeak Herriari buruz. Demokrazia espaldian beretua zuten gure Arabasok!...

Espaniolak aldiz kezka dabilta. Beren erregea galdu berria dute: haren ordain batzuek Karlos nahi, besteek Txabel. Politi - politikari Karlosek bildu ditu Eskualdun gehienak: suntuarazi diote Txabeldarrek suntuatu nahi dutela fedeia eta Eskual-Herria esklabo ezarri. Aldiz bere goraki agertzen da Jainkoaren eta

3
eskual zuzenen alde. Zorigaitzez gure arabasok haurroak esnea bezala iretsi behar zituzten haren ele xuriak...

Eta horra nun hasiera doan 1833^{ko} gerra izigarria. 30.000 Eskualdun xutitu dira bereala Jainkoaren eta "fueros" deitu zuzenen alde. Zumakakarregi aipatua buru, zer gudua ez dituzte irabazten! Baina 1835^{an} Bilbon parteko ponduan, Zumakakarregi geltzen dute. Handik landa, laster oharitzen dira euzko-gudariak, salduak direla, eta 1839^{an} Espartaco aintzindari liberalak, heien zuzenak zainduko dituela hitzemanen diotelarik, gogotik uzten dituzte harrak.

Karlistak zangooperatu bezain laster, Esparterok jaten du bere bitza: 1839^{ko} Urriaren 25^{an} lege berri bat agertzen da, Eskual-Herria Espainiaren meneko ezartzen duena...

Gerlaren etsai bolin-bada Eskualduna, esklabotasuna ere ez du maita. 1872^{an}, Don Karlos zuzenaren ilobasoa buru, berriaz piztu da gerra-milaka eta milaka erortzen dira Eskualdunak, Jainkoa eta Zuzenak zaindu nahiz: oro debaldetan!... Beren ontasuna gehienak galduak, azkenean amor

eman behar dute. Santa Cruz apezaren balentriak
ez dute lehertzen ahal izan etsaia. 1876^{ko} abuztailaren
24^{an} eskualde zuzen guziki ezeztatuak dira.

Zorigaitzez gerla besterik galdu dute
Eskualdunak! Guduetan hain goraki erakutsi
karra itzali zaiote. Espainiak eman legearen
azpian lehertuak bezala daude. Hainitzek diote
Jainkoaren nahia dela besteen meneko bizitzia.
Uste dute beren legea arrotzen ganik ukana
zela, eta beraz zuzenki kendu diotela. Hemen
dik aintzina, gazteek zerbitzua egin beharko dute
Espainiarentzat. Zer ahalgea! Arbasoek bizia
galduko zuten etsaiaren astaparretarat orori
baino lehen, eta hain semeak, behia uztarriari
bezala, ixil-ixila jarri dira Espainiaren
eskuari!... ~~Arbasoak~~

Zer egun dorpeak!... Politiki politiki
kultzerat doa eskualdun gozosa...

E. B.

Emeki emeki

Arana - Gori

Lehen zatia ^{Bizitzia.} ~~Arana~~

I Argiari buruz.

ce a est
bat

Bizkaiari, Biloko ondoan, Abendu deitu
hervino batean, Albiako etxean bizi ~~giri~~ senar
-emazte batzue: Santiago Arana eta Saktuala Gori,
Aberatsak ~~giri~~ itas-untzi egileak. Santiago,
giriistino kartou eta eskualdun sukarrak: gozotik
emanen ~~leza~~ bere bizia Jainkoaren eta euzkal
zuzenen alde.

1865^{ko} martarrilaren 25^{an} zorigazaren haur bat
ukatu ⁿ guteri: Salin. Haurno horrek zuen behar-
riatzari lokarturik zagon eskualdun odolak. Haur-
no horrek zuen behar itzuli lortarriari bere
nortasunaren oharpena. Haurno horrek zuen behar
itzuli eskual-Herria. Ez, Jainkoak ez zituen
ahantziak bere mutil leialak!...

Lehenbiziko urteak zorian gotxonean iragan
zituena Sabintxok. 1872^{ko} gerla hasi zenean, karlistan
alde agertu zen Santiago, orduko Eskualdun

gehiensak begala. Ingalaterran zombait denbe-
ra iragan eta Baionan kokatu zen. Laster
bere ganat deitu zituen haurrak. 1873ko Agosti-
~~laren~~ lean Paskualak ~~er~~ hartu zuen
Lapurdikoko bidia hirur haurrekin: Koldobika,
Sabine eta Paulina. Endaiaen aia zagon
aita: elgarrekin jua ziren beraz Baionara,
handik laster Getaria-ra eta Urriam berri,
Baiona-ra. Gazterik ikasi zuen beraz
Sabinek etxetik urrun ibes egitea. Geroztik
zombait Eskualdunak ez dute bide bere hartu
etxeraren aztapeneretik urruntzeko! Janikoari
esker, hainitzek beren bihozminean atozgin bat
ere aurkitu dute: Eskual-Herritik ez urruntzea!...

Baionan, Espainiako Karrikan, "S^t Denis
de Gonzague" deltu ikastetxe aipatuaren bi
urtez (1873-1875) egin zituzten beren ikas-
teak Koldobikak eta Sabinek. Mikel Garitotz
saindu eskualdunak moldatu apezak ziren
orduan erakaste etxe hartan.

Baionan huna Mendekoste eguna.
Donibane Lohitzuneko eliza ederrean, begiak
apal, eskual loturik, Sabine Atipia Kartauki
hurbitzen da mahain saindura, lehen

aldikotz bere Janikoaren bihotzeratzeko. Zer
zoriona egun hartan Arana eta Gouri'tarren
sendian! (famille)

1875^{ko} uda Ziburun iragan zuten, eta gero
Donibanen etxe bat hartu. Karlist Kapitonin
ohi bat, zortzez Arabarra, ukau zuten haurrak
erakastletat. Zer istorioak ez zituen kondatzen
euzko-gudarrien balentriek!

1876^{ko} Uztailaren 21^{an} Conovas de Castilla Espai-
niako buruzagiak agerrarazi zuen Eskualdunak
zerbitzuaren egitera bortxatzen zituen legea. Zer
oihuak Santiagok berri hori jakin zuenean!
Haurtunik egoiten ziren haurrak nundik ote
zuen aitak azkatasunaren maitasun kartau
hori...

Lehen ikerketak edo etorminak Ondaralain
iragan zituen Sabinek. 1876^{ko} Urriam, amarekin
jua ziren haurrak Abendoko berriat. Reguila-
ren 23^{an} galdu zuten bere amatei Maria Atxa.
Orduan Santiagok ere utzi zuen Baiona, eta
horra berri sudi guzia elgarretaratua. Herri-
rat itzultzean ez zuen Santiagok bere pegoa
Baionan utzi: helduerik gabe, gorati agertu zen

aintzina ere Jainkoaren eta eskual zuzenaren
aldek.

13. garren urterat zogolarik, Orduña hiriora
igorri zuten Salin, Jesuistek gauzkaten
ikastetxe aipatu batetara. Han egon behar
zuen 1876^{tik} eta 1881-raino. Bzun on
zuen Salinek: sari handienak erretxi hitzen
zituen. Jeleziak janak zauden zorbait lagun,
eta ~~na~~ hitzartu zien behar zutela Salin
galarezi. Bester nahasle batentzat nahi zuten
pasarazi. «Buzugapier nola jazeriko zen onen
zabilan beti: nahasketien plantatzeko lurri
berotzen baizik ez onen zuen gogorik...

Hona beraz Salin gezurrez beltztur: Aita
mendia-z kampo beste trukatse guzietik oben-
duntzat daukate. Zer nigarrak ordutan eta
zer bilobuzinak! Atorgabeak hurririk eritzen
da. Bihotzetako zamiak loa eta osagarria
kuntzen diozka. Britegiko gela handi batean,
itxura guzian arabera, hitzerat doa Salin...
16 urte ditue gaixoak: loin gazterik burperatu
behar ote du? Aita mendia hor du sahe-
tsuan: bere butsak lañoki aitortzen diozka,
eta bere Jainkoa hartzen du azken alditotz...

Aita hurbiltzen zais orduan, eta irriño batekin erraiten
dio boz ziti batean: «Salintxo, nahi zimeke hil
orai bererem?»

«Oraino ez!» ihardetsi dio mutiko gazteak.

Ez, ez du oraino hil behar Salinek. Eskual
- Herria horren begira dago: Jainkoak hautatu du
bere Herriaren salbatzeko!

Geroago, eri handi zogolarik, heriotzearen
itzulak estaltzen ari zuela ikusirik, Aita Mendia
igorri behar zion eskutitz bat, errang Orduña
ikastetxean eri egon zelarik, zerbait sekurita-
tzen ziola barnetik, ez zuela oraino hil behar,
loin handi zerbait egon behar zuela hil-eritzi...

Ez, ez ~~guzen~~^{du} hil nahi z Salinek: orotza-
riok eskuan hitzemaiten dio Begoñako Ama
Bisjinari, sendatzen balin-badu, aste oso bat
meza lagunduko duela beren aldashen. Begoñako
Ama ez du gutietatik bere haurtoaren otoiña.
Mirakuluz begala sendaturik, etxera eremiten
dute, eta 1881ko ekainean ohean iragriten ditue
baxoko ikarketak.

Koldobitak 1872^{an} Mena zuen baxon. Lagun
ditue hiriora (Comuña) igorri zuten zere Jesuistek
gauzkaten ikastetxe batetara, arkitekto estudioen

egiteko. Boste bat han iragan ondoren, 1881^{an}
juan zen Madrilera. Sorterrietik urrun, erro-
zen ez egagutza egin zuen Koldobikak. Espa-
niolen artean biziz ohartu zen ez zela heien
idurikoa. Herriaren maitasunik bete zion
bihotza, eta bere karru egin gordez, bere etxeko-
ak etarat hedatu nahiz gabitan. Salin nahi
zuen lehenik bildu: begiak nahi ziotzan idurkio
Bazakien argia ikusaz geroz Salinek ez ziola
urko eginen. Bainan zer egin? Kendik loti?
Zer buruharsteak Koldobika gazte zaharrentzat...

II
Argia. *Pea* *Lat*

1882^{ko} udaberriko egun goxo batean giza.
Koldobika eta Salin karat. hurat. ka dabiltza
etxeari datxikon baratzeño batean. Eskuald-herria-
un geroz mintzo dira... Koldobika sutan dago:
erran eta erran ari zazo bere anai gazteari. Althua
begala Salin Bizkaitetik atera balitz! Harek begala
ikusit eta egagutu balitu Espagnolak! Bete bere
xokoa dagoenak bixta labura du. Kaiolan

7
dagon xoriak nola jakinendu kanpoko berri?
Bizi ^{guzia} Espresondegi batetik ilunbera iragaitan due-
nak mundua egagutzen ote du? Salin beti Sorter-
rian dago. Boste du behar bada beste tokietan ere
heien idurikoaak direla. Ez, Salin, ez! Koldobikak
ere hala uate zuen lehenbizim, bainan bazterren
ikusteak on egin dio. Atzerriam du galdu begim
aintzinean zuen lana. Arana-Goiri'tarrak
Bizkaitarrak dira: eskualdun ordola dute zime-
tan goiri begim garbi! A, Koldobikak begala
ikusit balitu Salinek nolakoak diren Espagnolak!
Balaki zer pairatu duen heien artean! Ez, ez
deyake esma. Heien basakeriek nola gauritzen
zioten bihotza! Ez dute, ez ~~gizonen~~ ez eta
Jamikoren baldurrik!... Arana-Goiri'tarrak
Eskualdunak dira. Jamkoak hala egin ditu,
izate beregi bat emany. Gizonak nola urka
deyake bere nortasuna?

Sorterrietik urrundu denem, zer bihozmina
ez du jasan Koldobikak! Bere Herrietik urrundu
behar da maitasun bizi horren ukaiteko. Begira,
holzak iragan direlarik, urzoak ere goin gozotik
itxultzen diren sor-lekura! Erbestean (kanga)
bizitzen begalako zorigailtzek ote da esima
bihotz

Kartsuarentzat?

Behenago gauzak ez ziren hola. Bizkaitar-
rak beren buruen jabe ziren. Herriak guztietan
buruzagi batzu izendatzen zituzten: gero buru-
zagi horiek elgarretaratzen ziren Gernikako
arbolaren itzalcan, eta han, anaien artean,
moldatzen zituzten Bizkaitarrei zozketion
legeak. Espainiak ez zuen sudurarik partzen
leien ikustekoetan. Zer bakera orduan
Eskual-Herriari!...

Bainan ontsuan bat galdu behar da
osoki estimatzeko. Eskualdunak azkatasu-
naren jabe ziren, bainan auzoko salda ere
nahi zuten jasatu. Orduan ziren haasi Karlisten
gerlax, hobeki eginen baitzuten Eskualdunak
ez balira behinere nehaskeria horietaz grixatu.
Zer zitzaien Eskual Herriari, Espainolen buru-
zagia izan zedin Karlos ala Isabel? Berak gortuen
bigi ziren: zertako sar Espainolen aurretan?
Wote zuten bai Eskualdunak Janikoarentzat
eta beren zuzenentzat ari zirela guduan:
dohakabeak! Eskumakiletako gauzkatu
balkarrik Espainolek: gudari orak lide ziren
gure Arbasoak!...

Eskual-Herriari zer ondorio ekarri zioten
gerla horiek? Azken zuzenak errantsiak izan
ziren: Koko beltzen azpiko bigi behar ko ~~herriak~~
Landik aintzia! Arrotzen meneko, itotzen eta
galtzen ari dira Eskualdunak: nor diren ere
ahantzi urran dute...

Eskual-Herriko edestia (histoire) behar du
ikasi Sabinek. Jakin behar du nolako-ak diren
eskual-legeak. Zer behar du ikasi bereziki?
Arbasoen mintzaira: eskurra! Hunek ditue
Eskualdunak hobekienik beretun beste jindetarik.
Ez otoi ukia Janikoarua genik ukian dohainak.
Aberriak deitzen du Sabin: gogor egon nahiko ote
du dei hori entzun eta? Eskualdun arnegatu
bat bilakatu nahi ote du? Koldobika ere hor
izamen du laguntzeko: bin artean behar diete
urratu beren anaien, begien aintzian dute
trapu ilun hori!...

Predike luze horren ondotik, Sabiri ixilik
dago. Herria eta azkatasuna gain-gainetik
maitu ditue, aitaren Karrak kutsatu baitu
haur-haurretik... Bainan zer galdegile die
Koldobikak? Zer, orai artean maitatu dituenak

hastitu beharko diti? Zer, bere adixkideak
hobenetarik berexi beharko zaito? Ez, ez, zertako
muntzatu zira Koldobika? Salinen bihotza nahasi
dugu! Eta orai artean ukam eskola? Uko
egin beharko?... Eskualdun, Eskualdun, z baiman
zertako ez Español? Zantxoak sakrifizio hori
galdatzen ote dio?


Txiki dago beraz Salin, bere gogoarekin
borroka. Eskual-Herriaren geroa ixiltasun
hortan dago... Poliki-poliki argia urratzen
da. Salinek bere bidea ikusi du: baiman
zer arantzeak bide hortan, zer harri dorpe,
sistadunak!

Isoki zuzena da Salin. Ez du nahi
eraman dezaten jendeak, beldurrez galditu dela.
Eskual-Herriko edestia, muntzaria, legeak ita-
siko diti lehenik: gero ikusiko zer xede
hartzeko duen. Koldobikaren gogorat itzultzen
bain-bada, gogotik emanen du bere bizia
guzia Aberriaren zerbitzuko.

Bere hitza ez du janen Salinek. Adix-
kideak, ahideak, ontasunak, bizia bera, ^{guziak} ~~du~~
gogotik galdutako diti Porteriaren onetan.

1882^{ko} goiz hortan, Koldobikak erakutsi

9
dio Salini Egiazen bidea, eta ere Kalbariotas...



E.B.

III Lanean (Aguirre)

18 urte zituen Salinek. Konda zitakia
gazte horren gainean? Errom zaharrak dio:
"Gazte eta ero, zentzaturen gero!" Gaztea ez
ote da aize hegor eta emagtearen gogoa bezain
aldakor?

Nork ez daki xede hoberean hartzen? Heien
oharrea basterik da. Estakuru guti asti
guzien bazarerak utziko!... Baiman Salinek
bihotzean barna sartu zuen Koldobikak
Herriaren alderako karrua. Su horretan ere
nahizion barna guzia. Eskual-edestia ez
zuen behinere irakurri: arbasoen legeak ez
zituen azagutzien: ez zuen oraino eskuaraz
hitzegin... Halere hortzuz eta haginuz ^{3m} ~~3m~~
lanari. Zer izerdia hamar urte! Zer bihozmi-
nak! Artetan etsitaketan Zagon: zoni gototki
bizia jiren haren lagunak holako gurasak
gabe!... Baiman Aberria haren begira Zagon.

Herriaren maitasunak gairiditzen zion orduan
bikotza. Bere Karra ez zuen nehoi salatzen:
agerian hasi baino lehen, lan horri buruz nahi
zuen moldatu bere izate guzira.

Lehen-lehenik estuara nahi zuen errotik
ikasi. Ez zen lan errexa: eskual-libururik
ez zen Bizkaian: Van Eys-en hiztegiarekin
hasi zen borroka.

1882ko Agorriaren 11^{an} Jon bere amaia galdu
zuen. Biziki mutiko ona zen Jon. Abkaldi gaixotza
aitarendako: bere bihozminaren erditik hitz
hauk zituen erreplikatzun: "Badakik nik
nor jamaikiko zaien!" Ervan bezala, biho-
tzera eman zion alditxartze batik, eta
1883^{an} pausatzen zen Jon sainduararen egune-
an.

Sabinek mexdikuntza nahiko zuen ikasi,
bainan etxekoan nahiari. ez jazaritzeko,
lege-estudioer lotu zen. Barcelonan hasi
zuten bere ikasteak, beste Eskualdun anda-
na batekin. Berritxo-a martiraren hizurrek
etxerri zituztelarik, Eskualdun guzietan beste
bat egin zuten haren ohoretan: eta horra
nun xutitzen den Sabiri oihuka: «Gora

10
Berritxo-a! Gora Bizkaia! Gora Barcelona!»
Lehenbizian harritu ziren jendeak: gero biho-
tzean halako goto bat senditu zuten, holako
hitz beror ez baitziren jarririk. Sabinegand-
tik, denek apurritik erreplikatu zituzten
orduan oihu berak: Herriaren alderako lehen
oihuak!...

1887^{an}, Bizkaiko buruzagietan estuarean
erakusle bat bilatzen zuten. Bere burua
eskaini zioten E. uririk Sabinek. Kargu bere-
ko agertu ziren Unamuno eta Azkue aipatuak.
22 urte zituen Sabinek, eta eskual estuarean
erakusteko on ~~er~~^{zen} fadanik! Zer den kartonki
lanean artzea!

1888ko Otsailaren 11^{an} ama galdu zuen
Sabinek. Bihozminarekin eritu zen. Hortarik
ageri da zer bihotz gurria zuen Sabinek.

Agorriean Bilboko feriak. Ingalaterrako
protestantek nahi zuten lotiga bat ezarri beren
liburuen saltzeko. Berri hori jakin zuenean,
zer egin zuen Sabinek? Gaitzeko liburu kato-
liko andana erosi zuen, feria egunem kataliko-
ek ere egin zezuten beren erosi behua. Orduan
Inglasek ez zuten gehiago aipatu Bilbora

giterik, baitzakiten Sabri bezalako gizon bate-
kin ez zela konkurrentza egiterik! Jainkoaren
alderdia hain ederki zintzu behar zuenak ber-
laji guzian, bazakien lo egonez diru-bagaltzen
Katolikoa. Erakusteko fedearen alde ari zela
lanean eta ez diruarentzat, erosi liburu guziak,
urririk hedatu zituen jendeen artean.

Denbora berean eskual-edeatia ere ari zuen
ikertzen arta fraundienarekin. Edestian zuen
bereiziki Kanaitu Eskualdunen nortasuna.

"Euzero" delako "Euzenak" ez dira auzo Herri
baten ganik ukonak, bainan dira egiagki
Eskual-Herriak beste Herriek bezala dituen
lege bereziak. Zuzen horiek ez dira Espainiako
eskualde batelako legeak: dira Eskual-Herriko
legeak. Ez direnez geroz ukonak, lege horiek
ez dira arrotzen eskuko. Espainiak eman
baliozkate lege horiek Eskualduner, herriek
ez lukete aranguratzerik zuzen horiek kendu-
rik ere: bainan Eskualdunak zuzen horien
jabe ziren Espainiak mundu huntarat agortu
baino lehen!

Beraz 17 urtetan Sabriek hitz bat ez

zakien eskuaraz. 22 urtetan mintzairaren segre-
tu guziak xilatuak zituen. Eskual-edeatirik
bazen ere ez zakiem, eta orai osoki eta erro-tik
ezagutzen zuen. Zer lanak ez zituen beraz
erabili! Zer konna ez zuen erakutsi! Alta berak
aitortzen dauka ez zuela batere gosturik ez
edestiarren, ez legeen, ez hizkuntzeren alderat:
Aberriaren maitasunak zuen bakarririk susten-
gatzun bere lan dorpean. Zer etsenplua!

Ikasteen ondotik huna obrak. Eskuarazko
bere lehen lana "Euskal-erria" deitu agerkarian
hedatzen du.

1887ko Abendoran huna lehen liburua: "Etimologjia
euskérica", eraman nahi baitzu, "Eskual hitzen erroak".

1888an "Pliegos euskerafilos" edo "Eskuararen
alde zombait berri", eta "Gramática elemental
del Euskera bizkaino" edo "Bizkaino hizkuntzaren
elizti tipia".

1889an "Pliegos histórico-políticos" edo "Edestiaz
eta politikaz zombait berri".

Langile haundi bat izan da beti Sabri. Bai-
nan ez juste izan beti bere mahainari loturik
egon zela: lan-arteak ere behar ditu gizonak.
Buru berotzen da liburuetan arizanez: notazpait

hustu beharko...

1889^m badoa Frantzia aldera. Zorbaiz egun
viagaiten ditu Parisen eta gero Vichy-ko urtetan.
Saint Etienne hirian harma bat erosten du, ihiz-
tari errabiatua baita Salrin. Zer lovia harentzat
Laxetio eta Gernika-ko laborari batzuekin
oihanez-oihon ibilizea basurte-keta. Gaitzeko
zakur andana batekin, elurraren eta hotzaren
heldurrik gabe, aize ala zuri, zokotz-zoko
dabilen mundik zer atzemaneu duen.

Ez ditu ahatik bere ikaateak bazterrerat
uzten. Lurrunen orde gizonak baliatzen ditu.
Ihiztari lagunekin munitatur, egunetik egunerat
trabatzan orai da arbasoen mintzairan.

Bundiniz eguia iduri du Salrinak. Zer
bidaiak ez ditu egiten bere adixkideekin tipri-tapa
elurrean! Bere buruko haundiarekin, mokas
bat lepotik, aruntiki beztu, norik epagutuko du
Albiako seme iberatza? Salrinak maite du jente
xehearekin egoitea. Eskualdunetan ez du nahi
ez haundirik ez tipirik: denak berdin anai!...

Jende xeheak ere maite du Salrin. Espia
erran beriz ere aurpegi maitegarnia du bere
begi ztiarekin: bazan luze batek gotatzen dio

17
la
begitarrea. Norik ez du maiteatuko aita edo ama
baten hil-berriak eritzen duen gizona! Bai bihotz
ona du Salrinak. Ihizi ondoan, dinen artean
partiarazten ditu basurde hilak, eta bere par-
tetik ere adixkider janta igortzen diote.
Salrinen bihotz aberatsak beste bihotzak kurreraki
biltzen ditu. Ez da beraz harritzeko bere munital-
distan eta idazkietan (letris) jendea xoraturik
atxikitzen balin-badu.

IV Larrazabal.

1892^m, 27 urtetan hasi zen Salrin bere gozoaren
agertzen. ~~Jadonik hamar urte abertzale (naburte)~~
~~Jela! ban onik egin zuten urte horietan, eta orai~~
~~gudakatzeari nahi du eman osoki.~~

"La Abeja" edo "Ercea" deitu agerkeri batian

(Hizul otzi).

IV
Larrañabal.

1892^m, 27 urtetan hasi zen Sabiri bere gogoaren agertzen. Jadanik hamar urte abertzale (patriote) bilakaturia zela! Zer lanak ez zituen erabili urte horietan! Gudu katzeari lotu zen beraz epe luze hortan bildu indar guzikiak.

"La Abeja" edo "Orlea" deitu agertkarian eman zituen lehenik kondaira batzu: "Abertza-
ren laur ospe". Abertzale gisa mintzo ^{zen} berro horietan. Bizkaiko laur gertakari kondatzen zituen erakusteko nolakoak izanak ziren Bizkaitarrak. Herriaren balentriak goresiz nahi zituen bere lagunak bihotzak sutan ezarri.

1898^{ko} Hazilaren 30^m beste liburua bat agerrarazi zuen: "Bizkaia por su independen-
cia" edo "Bizkaia bere azkatasunarentzat".

Bere buruzaz mintzarazi zuen liburuño horrek. Erran dute Sabiri gertako lehen irrintzina izan zela idazki hori. Denak hortaz mintzo ziren: batzu alde, besteak aiber.

Lehiak nahi zuen Eskualdunen Konzi-
entzia eratzeri. Erran ditake bere xedea beti duela: liburu horrek ditu Sabiri idaztarat

13
itzularazi abertzale gehinak. Orduz geroz Sabiri
biyak balak begala zigutka dabilza jendeen
beharrietan.

Sabiri adixkideak harritu ziren. Jaki
nahiz nolako zen xuxen idazlearen gogo,
hitzartu ziren behar zutela elgarrekin apairu
bat egin Sabiri entzuteko. Larrañabal
hautatu zuten bikura horren egiteko.

1893^{ko} 8 Kaineren 3^m gira. Bihotza alai,
Begoña aldera doa Sabiri. Azkenean bere gogo
argio zabaltzen ahalko du bere adixkide
koherener.

Larrañabal-eko borda batean elgarretaratzen
dira beraz logoi bat adixkidei denak haundi-
etarik. Apairu denbora guzian ixilik dago
Sabiri, begiak beti nurbait galduek.

Apairua bururatzerat doanem, xutitzen da.
Guziak ixildu dira beren begiak Sabiri aurpe-
gion landatzen. Boz azkar eta ozen batean
haaten da. Koldobika-ri nahi diozka lehenik
eskerrak bihurtu, harek britiozka idoki begiek.
Lehenago ez zuen Bizkaia ezagutzen ere: anaiak
erakutsi dio nor eta zer diren Espetolak, nor eta zen

diren Eskualdunak. Hurbetan zabilen aintzinean:
orai Zel (Zainkoa eta lege Zaharra) goiburuan
(denia) argitu dio gogoan. Egia egin dezake bere
tzat atetik: bere lagunak ere nahi ditu ilumbetarik
bikurtu. Españolak ez dira Eskualdunak, eta
Eskualdunak ez dira Españolak. Bi populak ~~eta~~
~~jendatze~~ izendatzen dituzte hitz horiek, bi jende-
tze, bi herri. Españolak ez ziren oraino
sortuak, eta Eskualdunak [orduko izen bizi ziren
Jainkoak dakiti zenbait mende betan. Nola
dituzte beraz Eskualdunak Español?] Odola,
mintzaira, legeak, ohidurak, denak bestelakoak
dituzte. Ez, Eskualdunak ez dira Españolak:
Jainkoak egin ditu Eskualdun, eta Eskualdun
behar dute bizi. Gizonak hautsi dute Jainko-
ren lana. Odolak batu zuena, arrotzek berexi
dute. Gehiago dena, Eskualdunak jartzten ari
dira iziparriketia horri: hiltzerat doa eskua-
dun gogoan...

Bainan ez, Eskual-Herria ez da hilen! Hil
balinbada ere berriq frigituko da. Berak ere
bere bizia gogotik emango du # Herria bizi
dadin. Bizkaria lehenago bere gain bizi zen:
orai ere hala biziko da. Eskualdun guziak

bat egin behar dute nori bere izate berezia
gairiduz.

Jainkoak nola ez du entzumen Sabinen deia?
Noren onetan izanen # da lan hori? Ez ote dute
arrotzek galtzen ari Eskualdunen sinestea? Beren
bizi-molde bizunekin ez ote dituzte itotzen ari
Eskual-Herriko ohidura garbiak! Bai, Jainkoak
entzumen du Sabinen otoitza!

Txildu da Sabin. Lagunak harriturik dau-
de. Ero batentzathartzen dute. Batzuek iri maltzur
bat agerrarazi dute espainetarat: beste batzuek
atera dira eta urrundu. Bakar batzu bizirik
atera gabe daude. Azkenean xutitzen dira lek
ere eta ateratzen...

Gaua da. Sabin eta Koldobrika bakarrak
doazi etxerari buruz... Zer zauria bikotzean! Zer
ilundura gogoan! Bate zutin zer nahi atera
behar zutela bilkura hortarik, eta trufazko iriak
baizik ez dituzte bildu...

A zoin din latza buruan hartua duten
lana! Zoin duren lagarriak argiari besten
diren begiak! Zoin dorpeak egiari ihes egiten

duten beharrik!

A, ez da errex lehen maite zirenetarik biho-
tzaren garbitzea! Ez da goto bide errexaren uzten
eginbideak mantzen duen bide dorpearren har-
tzeke! Bihotzak dira falta Eskual-Herriean:
buruek onartu dute egia, bihotzak ez dute
obratu nahi!

Bilbo-ko Karriketan ixil-ixila doatzi Sabin
eta Koldobika etxerari buruz...



V

Juduan.

Asteagabeak ez zuen lehen Sabin. Larrazabalak
irri egin zioten adixkideek, ero batentzat
hartu zuten, bainan berak zuzenean zela
jakitea aski zuen. Ez zuen amor eman nahi,
bitartekoen Eskual-Herria egun batzuz piztuko
zela.

Handik bost egunen buruan, 1893ko Ekai-
naren 8^a agerrarazi zuen Eskual-Herriko
lehen berriketaria: "Bizkaitarra". Etaiaik
ez zauden lo: lau aldiz salatzen zuten juleari,

15
artikulu batzua bortitzezi zirelakoan. Sabinak
111 artikulua idatzi zituen agerkari hortan
Jadanik jendeetan azkarki hedatzen ari zen
"Bizkaitarra". 1895ko Buruilaran 5^a Espainiako
gobernuak debekatu zuen. Arantzadi aipatuak
egin artikuluaño bat: "Arrotzen erantzia
Gipuzkoan" — ez omen zuen gortukoa kausatu!...

Or. X 1893ko Agorilaren 16^a Irurriako Kantarian
ohoretan gaitzeko lagokori bat egin zuten Bizkai-
tarrek Jernikan. Bizkaitako arteak gizon bat
xutitu zen eta mintzatu. * Karlistak Kexu bide
ziren haren errarez: hosteko irri baino
murmurika gehiago zabalitazenez-painetan.
Heien asarreak piztu zuen Koldobika: xutituzen
eta delako gizona baino saminkiago mintzatu.
Ahoa zabalik gelditu ziren gugiak karlisturik...

Aratsaldean bandera hori eta gorria erre
zuten Eskualdunen azkatasuna oihuka galdegi-
nez. Irurriar Kantariak urrutuzen, berri oihu
berak: poliki-poliki iratzartzen ari ziren Eskual-
dunak...

Or. X 1894ko Otsailaren 18^a, 30 bat Bizkaitar jiuin
ziren Najarra, Kastexon herriak. Ongi etorriak

beroen egin zuten Napartarrek. Kexu ziren
orduan Napartarrek Espainien Kontra. Bere zuge-
nak zaindu nabiz, 110.000 sinadura bildu
zituzten Espainiako gobernari bere arranga-
ren ~~o~~ botatzeke goraki galdatzen zutika
Eskual-Herriaren batasuna.

1855^{ko} Otsailaren 3^a bazkari bat egin zuten
abertzaleak, Azkue jaunak ^{idatzi} liburua baten
ohoretan. "Bizcay'etik Bizkai'ra" deitu zuten
bere lana jakintzan haundiak, erakusterat
emaiteko nolako bideari lotua zen Eskual-
Herria.
Emendatuz zozin beti abertzaleak, eta goraki aitortzen
zuten nor ziren eta zer nahi zuten.

VI

Eskualdun batzokia.

Emendatuz zozin beraz abertzaleak.
Labinet^{ek} deliberratu zuten behar zituzka elgarre-
taratu. Bilbo^{ko} lilotz. lilotzean etxe bat
hanttu zuten batzar. tokitzat. 1894^{an} idoki
zuten batzoki hori. Urztailaren 14^{an} Ciriaco
de Iturri delitu ^{Karlist} jaun^{en} zindari ohiak eman zuten
lehen aldikotz eskualdun ikurrina, batzokiko

16
leiko batean. Labinet eta Koldobikak moldatu
zuten ikurrin hori: beren gozoan Bizkai^{ko}
faukaten bakarrak, bainan geroztik Eskual-
Herri guziak ~~bera~~ beretu du. Errex da
asmatzea abertzaleen bozkarioa, Aberriaren
itxura agertu zelarik! Zoin gogotik emanen
zuten beren lizia oihal eder horren gainitzeko!
Ikurrina agertu ordutiko hasi zuten lista: kontu,
sixtu eta jauzi.

Biharumean, igandekari, eliza lista egin
zuten Begeñan, Eskualdun batzokiaren idokitzea-
ren ohoretan. Mezatik landa elgarretaratu ziren
guziak, eta igendatu zituzten beren buruzagiak.
Lendakari. tzat (president) hautatu zuten Arana
-Gorri'tar Labin. Hurrek zituen beraz moldatu
behar batzokiako legeak. Laburzki emanen
dugu lan horren bilduma.

- Batzokiaren goiburua (deisi) izanenda "Tel"
errian nahi baita "Jaungoikoa eta Bege Zaharra".
"J": Bizkai^{ko} Katoliko da, eta Katoliko giza nahi
du lanari lotu.
"I": Bizkaiak baditu bere legeak eta bere munitzura.
"E": Jainkoaren eta gizonen artean behar da ezarri
Lokarri bat.

Elize izda probilitas okupatuks eta gobernuak ez du
Elizan endurrik sartuko. Bi eginbide agertzen dire-
larik, Elizak mamutua lehen.

Bi zkaria eskualduna baita, beste sei herri-
nahi du lotu, baina bere nortasuna beziratu-
zazpi eskual-herriak elgarretaratzen balin. Badi-
ra, zuzen berak behar dituzte eta epinbide berak.
Jainko bere goretin badute Eskualdunak, Leien
batazuna azkarriago baijik ez ditake izan, baina
pandu hosten nehor ez ditake hortza. Herri batek
nahi balin-badu beateetarik beresi, berak ikus.
Eskual-Herria oroz gainetik izanen da Azkatasu-
naren lurra.

Hona bi hitzuz emanak batzokian sartu
zienen xedek. Barne diren guzirik ez dira oraino
abertzale, baina kala direnak lanean ari dira
azkarki beateen itzalean. Sabinek seriozki lotu
da banari. Batzokian nahi duena sartzen da,
baina izana emany geroz, arinkeriak utzi
behar dira. 1894ko Hazilaren 30^{an} batzokirik Kixitu
zuten Sabinek Kexu ziren guzirik eta ere leger
jirraititzen ez zirenak.

Ez zituen denak alde Sabinek. Batzokian
etxean bihi zen gizon Kixkil bat. Ez zen soberakin

17
nik Kontant abertzaleen jaiz, ~~kontu~~ eta irriez.
Juzeari parte eman zion eri zelakoan eta ez
azartuz gora. Sabinek bere zimikoa izoni zion
beraala "Bijkaitarra"n. Ordain erotzen da
gure gizona eta auzitegi auzitegi abiatzen.
Luzaz debaldetan izan ziren boren zalapartak,
bainan azkenean aldekoak bildu zituen. Sabin
Kondematu zuten diu fruska baten emaitzat
era gainera 40 bat egun preso denegi bildu
zituen. Larriaga-ko espetxean egon zen
1895ko Agorriaren 28^{tik} eta 1896ko Martiraren
13^a arte.

Oraino preso zagozarik, Buruilaren 2^o gobernuak
hetsaragi zuen "Eskualdun Batzokia", eta hango
buruzagiak preso hartu. Bestalde barne ziren
110 eskualtzeak juzeari auzitegiara deituta
izan ziren.

Eskualdun batzokiarekin batean beste batean
bat ere moldatu zuen Sabinek, baina hau abertza-
lez equina bakarrak. 1895ko Abuztaiaren 31^{an}
Triaki saindu eskualdunaren ^{bate} egunean, Bijkaiako
lehenbiziko abertzaleak elgarretaratu ziren Eskual-
dun Batzokian, batzuz edo bitzuz nagusi baten

egiteko. Orduan zuten moldatu Eskual-Herriko
lehen "Buru-Batzarra", euzko-~~del~~ abertzaleen
alderdiaren (partido nacionalista basco) gidatze ko.
Buruazagi horiek behar zuten mantatu Bizkai-
ko abertzale guziet: deitu zuten beraz "Bizkai-
Buru-Batzarra". Buru eman zituzten:
Arana Goiri'tar Salin eta Koldobika, Izpitzua'tar
Fabian, Lekue'tar Elias, Aranburualate'tar
Jose, Llodio'tar Ziriako eta Etxeita'tar Xabador.

Agorriaren 15^{en} zin egini zuten guziet
beren kargua zintzoki beteko gutela, errang:
"Bizkaya, Bizkaya, Bizkaya: Jaun Goikua eta
Lagi-Zarra'en alde". Eguno egunean ere hitz
berak erraiten dituzte Bizkaitar buruzagiek
beren kargua hartzen duten egunean.

Zer lanak iz zituzten egun behar
"Bizkai-Buru-Batzarra" delakoak! Lanter
leopaldako beste hiru herriet ere izanen
dute beren "Buru-Batzarra", eta guziet
nagusia ezarriko dute "Euzkadi-Buru-
Batzarra". Noiz iparraldeko Eskualdu-
nen aldi?... Abertzaleak emendatuz borrazin.
Hogoi-ta ~~spaniako~~ bi ilahetuz gaitzeko jauntzia
egin zuen "Bizkai-Buru-Batzarra"-k. Borne

13
zirenek bazuten beren biltzar-tokia eta bere
agerkaria. Milaka sartu ziren Eskualdunak
batan hartan.

Espaniako iz zuen begi onuz ikusten Eskual-
-Herriaren frizkunde hori, baina Abertzaleak
hertsatuago eta ~~se~~ Kartsuago zozin egunetik
egunera...

1896 ko Urtarrilaren 13^{en} atera zen beraz
Salin espetxetik. Adixkideek bagkari bat eskaini
zieten azkatze horren ohoretan. Urtarrilaren
25^{en} egun zuten beraz besta hori, Salinen urte
betetzeko egunean. Bestaren artean, Bilbo-ra
deitu zuten Salin, eta julek erakutsi zion Canosa
del Castillo-k gudarain gobernadoreari igorri
manua: "kerbait-nahaskeria gertatzen bala-bada
besta hortan, bota tiroak!"

Bizkai egun zuten beraz polize gizon
erdian. Jan ordoan denak xutitu ziren Janikoari
eskeren liburtzeko. Uzte izan zuten orduan
Jandarmak nahaskeriaren lasteko keimua zela
hori, eta beren harmak itzuli zituzten bestalier-
ter buruz.

Hona nola egiten zituzten bere bilkurak
eskualdun abertzaleek, espagnol uztarriaren pean.

Bainan mehatu guziak debaldean ziren: Jainkoa urrikaldu zen Eskual-Herriag. Arama - Guri - ren bozaki ez zuen gehiago ixildu behar Guzkadiko mendietan...

1897ko Agorilaren 8^{an} abertzaletan berek barreatu zuten batzokiko batasuna. Egun hartan berean norbait hil zuen ^{tiro} Batzokiaren helea eta Eskualdunen zerbitzua mantatu zuten gizona. Jainkoa bali-bada luyakor, ez da sekulan ahazkor...

VII

Jainko eta gazteak.

Presoilegitik atara ordutako eskualdun lanetan hasi zen berriag Jainko.

1896^{an} etxe bat egin zuen eskualdun liburuaren agerrazteko. Urte berean argitaratu zuen lan bat: "Lecciones de ortografía del Guaranizikaino", errom nahi baita: "Dizionario hizkuntzaren idaz moldean". Liburu hortan bilatu zuen nola egiten ahalko ote zen eskuararen batasuna. Izan berri batzue ere moldatu zituen. Artetik erraiteko, lan ederra bururatu zuen bide

19

hortan, bainan aitortu behar dugu ez dela beti segitzeko ~~bat~~ Jainko bere hitz berrietan. Hitz berrien hedatzea on dela uka? Bakarriz jendeak beretzen dituztenak begiratu eta, ~~ez~~ zukuartzetik ez ote du mantatzen besteen artea? Gure mintzoi-ra lizi ~~tel~~ deno, ez gura haren nagusi, bainan gidari.

1897ko Otsailaren 20^{an} beste liburu berri bat: "El partido carlista y los Fueros Vascos-Navarros", edo "Karlisten alderdia eta eskualdun zuzenak". Liburu hortan aurkitzen da Jainkoen politikaren bilduma: ez dugu haren aipatzen baizik, erromtzeago eman gogo baitugu haren mania.

1897^{an} ordains: "Egutegi Bizkaitarra" (Calendria), eta "Urtiaren lehenengo Aizkidia". Azken liburu hau moldatu zuen haurer ~~eskual~~ eskuaraz irakurtzen era kusten: hain da ongi egia nun hoberetik ez baitzikatke aurki egungo egunear berean. Urte berean agerrazgi zuen: "lehenengo egutegi bizkaitarra". Eskualdun lehenbiziko almanaka sortua zen: samindu gazien izenak eskuaraz emanak zituen.

1897ko Maiatzaren 2^{an} Jainko agerrazi zuen berrikelari bat, "Berritarrak", bere gogorean

zabaltzeko. Aste Karanaren buru emak^men Guejar-
tzale zahar ~~bat~~ eta jakintzaun bat, baliu haundi-
ko beste laguntzaile batzuekin. Berak ere 100 arti-
kulu argitaratu zituen Kaseta hortan.

18 aldiz argitu zen bakarrik "Baserritana".

Zer nahi izan zen nkan ondoan argitegitom,
Españolek debekatu zuten 1897^{or} Agorrilaren 29^{or}.

On egiten du orai ere lan izugarri horren
irakurtzeki. Salirik aitortzen dauku, azkata-
sumaren deia adiarazi balin-badu Euzkadi-ko
mendieta, Jainkoarentzat duela bakarrik
adiarazi. Aitortzek ~~et~~ usteltzen ari zuten
Eskual-Herria zaindu nahiz du bere bizia
lan dorpe horri buruz itzuli. Zel-en argiak
argitu dio gogo-a, eta ordetik ezin itzaliz da
argi hori!

Eskualdunak nahi ditu berotu: hainitz hotz
daude. Batzuek aitortzen dute zuzenki dabilela
Salin, baina ez dute haren ondorek abiatu nahi,
ameto batek liluraturik daukalakoan. Eskual-
Herrian azkatasuna nahi lukete ba baina
jate dute ezin ^{utako} dala. Salirik nahi diote
erakutsi hola mintzo direnak direla Aberri-
aren etsaiek haundienak: alabainan Esku-

aldun guziet nahi balute azkatasuna, laster
ukan bezakete. Berokta bere alde juenez ez da
deus eskuratuko: batasunak du egiten indarra.

Dolatan dago Salin hoinbeste lan erabili-
rik de baldetan. Ez zuen ez nate hoin bihotz
idonekoak zirela Eskualdunak. Zer lanak
ez ditu erabili enaier begiak zabaldu nahiz!
Zer bihozminak ez ditu jasan eskual gogo-a
ziatzen nahiz. Nun dira nake horien
ondorioak?

Gogoak argitu ditu, baina bihotzek
hetsi diote atea. Hainitzek bidea ihusi dute,
baina kurria zaitze faltatu bide dorpe
horri lotzeko. Bihotz onekoak hoin bakan ste
dira Euzkadin?...

Bere adixkideak, bere ontasunak, bere
bizia gogotik galduko ditu, baina bihozminak
gabe Aberriaren onetan: baina goxo-goxoa
beren baitan bizia nahi dutenen berekoitadu-
nak zauritzen dio bihotza!

Eskola emak^mek jigaratu dira eskularri-
debetatu ~~to~~ nahi lukete haurer arbasoen
mintzaira. Zer gauza lagarriz!

Estaturik, Salin gazteri buruz itzultzen da.

Gazteak maite dituz Saliniek: fidantzia osoa
badu heien baitan. Gazteak bihotz ona du,
Bixi errexari gogotik urko eginen dio egin-
bidearen betetzeko. Zer eg du egiten gazte
batek bihotzean zer bait hartu duelarik?

Zaharrek lotzate dute Salin. Zuhaitz
(arbu) batekako adar eihartuer nola eman
lizia? Zer indarra aldiq udaberrian
agertzen diren propoin eta laida gazteetan!
Bere astareren estekatur denak nola trenka
deyake bihotza urratzen ^{tuz} ~~edo~~ hain maite duen
korropiloat? Gazteak bihotza garbi du jai-
dura txarretarik: indarekoso dituz, eta
heien ongiat bihurtzean da guzia!

ez, ez da errex abertzale izaitza: sakri-
fizio frango galdetigitu du Herriaren maite-
sumak. Bainan gazteak maite du sakrifizioa.
Gazteak behar dute Eskual-Herria erreka
zolatik atera. Abzetur egonen ote dira?

Xuxen Kapsitu du Saliniek: gazteak
segitzun dute tropaka. The xurien trufen
getik, bihotza dena kar eta su, lizia nahi
diote itzuli bere Aberri maiteari. Pork
atxik horien oldarra?

Salin eta Karlistak.

Jadonik erran dugu Eskualdun gelienek
Karlos errege-nahian alderdia hartu zutela,
ustiz eta Jani Korren eta eskual-zuzentzat
ari zirela guduan. Gerla galdu ~~ta~~ ere
itau gelditu ziren Karlistak: Saliniek nahiko
ziozkaten begiak idoki, bainan zer egin?
Asmatu zuen behar zuela liburu bat ~~egin~~
agurrarazi bere herritarren argitzeko. 1897ko
Otsailaren 20^{an} agertu zen ^{berria} ~~behar~~ hainbeste
lano barreatu behar zuen idatzia: "El partido
Karlista y los fueros vasco-nabarro" edo "Kar-
listen alderdia eta eskual zuzenak".

Gaitzeko errekesta urkan zuen liburu honek.
Lehen ager aldian 10.000 saldu ziren eta bigarrenean
5.000. Odra hortan du hedatzen Saliniek
bere politikaren bilduma. Laburki emanen
dugu hain liburuaren mania, Salinien joooa
gerotago hobeki ikertu behar dugulakoty.

Jakintumek diote Eskualdunak jendetze
edo gizada (peuple) bat diela: gizada berezi bat.
Edestiaten oralera europako zeharretarik.
Edestia lekuko, nehoen uztauria ez zuten behin

jasan gure arbasoek. Mendi zokoetan Eskualdu-
nek beren noitasuna begiratu dute orai arte.
Auzo herriak aldiz nahastekatuak izan dira
azkarri eta bestelakatuak. Ervan gabe doa
eskura ere beste mintzairerik osoki berera
dela.

Mendeak eta mendeak bigi izan dira Eskual-
dunak multzoa, erresuma itxipi batzuetan
elgarretaturik. Nahiz barreatuak ziren, odo-
bera zuten, mintzaira bera, lur bera, lege bera.
Denen artean izendatzen zituzten beren buruzagiak,
Herriar guziek zuzen berak eta eginbide berak
zituzten.

Errepublikan bigi ziren Eskualdunak
Napartarrak salbu. Napartarrak berak hantat-
zen zuten beren erregea, eta hau herrietan
izendatu buruzagien agiiko zen orai Inghla-
terrak eregea bezala.

Bainan zorizaitzez gure arbasoak ez ziren
beti zentzug jokatu. Beste erresumetan bezala
egin nahiz, "Jann" batzu hantatu zituzten:
gehienak gudari aintzindari ziren, eta buruz-
giam biltzarrenen pako. Ondikoz laster "Jann"
horiek beren ondokoer utzi zituzten bere zuzenak,

21
eta Jann horien etxeak haundituz bezala, azkenean
Kastilloaren eta beste herrialde batzuen jabe
jari ziren. Ahatik Espainiako errege izana
getik, Eskual-Herriean "Jann" gelditzen ziren,
eta heien zuzenak ez ziren berak Espainian
nola Eskual-Herriean. Espainiako errege
libekatzun zirelarik ziren egiten zuten eskual
zuzenak zainduko zituztela, denetan men-
dratu gabe.

Zuzen horiek ez ziren berak Espainiako edo
Frantziako emanak: ziren osoki Eskualdunen
lege beregi batzu. Ez zituenaz berak berak
emanak lege horiek, per saku zuen arrotzak
heien Kentzerko? Ezluzte hori zuzen kontra
egina izan da: guretat ez du berak balioak.

Eskualdunak ez direnez geroz espantol edo
frantses, ez odoloz, ez mintzairaz, ez lurraz,
ez legez, ez eclestiaz, 1839ko legera, eskual-
dun zuzenak ezeztatu zituen legera, zuzen kon-
trakoa da, berak indargabea. Eskualdunak
nko egin behar diote. Guzikadisk beretako
gu molde hortaz mintzineko azkatasuna.

Eskualdun alderdi (partis) guziek onartzen

zuten Salinen asmatzeko molde, es aldiz heren
xedeak. Bai, esia da Zugentidea ostikatu
dituztela zangoperatu Eskualdunak Espño-
lek, baina ~~o~~ engoitik hola da: gauden
beraz español... Goxoti izi ziren hainitz
uztarraren azpian: bate batzuk ez aski
bihotz uztarraren baztertzeko... Gogora erne
dago bai, bihotza ahul...

Halere liburu hori eskur hainitz Eskualdu-
nek begiak idoki zituzten, eta nonba handian
sartu ziren euzko abertzaleen alderdian.
Salinen lona ez zen beraz debaldetan izan. Ordu
arte Eskualdun gehienak Karlistak ziren: liburu
hori agertu eta bakandu ziren azkarri. Gehiago
dene, 1897^{ko} funat Karlistak garai batzuen-
tzat irabazten dira, ~~eta~~ ^{gehienak} ~~dira~~ ^{aspaldian} utzia
duzte alderdi hori.

Bihotzen go zuen beraz Salinek Karlisten
alderdia. Zonbat y dira arros itzulikatuetan izan!
Eta zer abertzale kantak ^z ^{dira} ^{bilakatu}
argia ikusi eta ~~z~~ leialki ^{jarraitu} ^{zitzazkonak}!

IX

Eskuararen alde.

23

1897^{ko} Buruilaran 8^{an}, eskualdun beste handia
Legendika - ko herriñon, Txirringa deitu eixean,
Abertzale andana bat elgarretaratuak ziren
herriko besten ~~et~~ estakuruan. Bezperatik
juana zen Salin. Goiz-goizetik eskualdun
ikurrina landatu zuten herriko plazararen
erdi-erdian: gero denak sartu ziren elizan.
Han ~~et~~ meza bat xoragania kantatu zuten
17 abertzalek: meza bururatzen denek betan
enago zuten Salinek moldatu "Inaki"
kantu aipatua.

Atera zirelarik elizatik, eskualdun
ikurrina falta: jandarmek kendua! Zer
hera ez zuzkatu españolak Eskualdunen
karra ikusiz!

Bereala haur andana bat bildu zituz-
ten, eta ~~hau~~ ^{ziogkaten} eginarazi zituzten lehen alditok
gure "Eskualtzaleen Bilgana"-k eginarazten
dituen eskuarazko lanak. Hobeikienik via-
kuntu zutenen saritzat eman ziogkaten exo
liburu, edo goxo, edo zerbitz koleko. Hamnen
loria! Handik harat zonbat aldi ez dira egin

eskuarazko lan horiek! Zer bihotz ona y dute
erakutsi gure Eskualtzale Kartauak! Zer
bidea ez du egin eskuarak! Ez, ez da hilean
gure mintzaira: adixkide onak baditu
oraino...

Espaniolerak begi onak zituzten: ikusten
zuten beti emendatuz goala Salbimen alder-
dia. Eta deus egin egin! Zer Kopeta y
zuen Salbinek! Zer eginen du Espainiak
Eskual-Horria gabe?

Denbora berean kexu ziren Espainolak o
koloniatako gendeak asetzen hasiak ziren
laiein uztaeriaz. Cuba, Puerto Rico, Pilipi-
nak beren gain bigi nahiz zabiltzan. Berain
Español berekoiek ez zituzten galdu nahi hain
erexki buluzten zituzten lurak. Eskualdun
abertzaleak herri horien azkatasunaren alde
agertu ziren: hori ikusirik, Espainolak bere
kolera edo samurraoa liertu nahiz zabiltzan.

1898ko Apirilaren 24^o gaitzeko Kalapita
muntatu zuten 8.000 gizonet: andana bat
juan zen Salbimen etxerari buruz. Zer oihuak
orduen: «Gora España! Hil bedi abertzaleta-
suna!» eta holako mila erokeria.

26
Harrika ere aliatu ziren Español basak, etxeko
berin guziak behar zituztela erraustu.

Nahor ez zen memento hartan etxe barmen.
Salbin eta Koldolika Sukarnieta-ek iltzuli zire-
nean, harrituak gelditu ziren nungo jendaila
basak iragan ~~basak~~ ote ziren han gaindi.
80 bat harri Kondatu zituzten etxe barmen.
Elgor hitzarturik, berinen orde Kartoin gori
batzu atxiki zituzten luqaz, denek ikus zya-
ten Españolen basakeria.

X Salbin deputatu.

Abertzaleak azkarki ari ziren lanean.
Gazteek beraziki gaitzeko karra erakusten
zuten. Beren lagun guziak nahi zituzten
bildu: anaiak anai, adixkideak adixkidea,
ikasleak bere laguna.

Eta horra nun aipatzen duten bozken
egitea. Bereala Salbinek buruari eman du
behar duela presentatu, eskualdun abertza-
leen alderdiaren izenean.

1899ko Berruilaran 4an, Bilbo-ko aldean
4.500 boja bitzen ditu. Zer ~~et~~ irabaztea!
Hainituzik dauka etsaiak eta adixkideak berak!
Lehen aldia eskualdun abertzale bat deputatu
izendatua dela Bizkaiko Biltzarrean!

1899an berriaz herriko bozkatik. Bost
abertzale partzu dira Bilbo-ko kontaeiluan.

Zer erakospin ematen daukate bozkatze
horiek? Abertzaletasuna ari dela ezkarri
partzu Bizkaian. Bere herroak ari ditu
hedatzen poliki-poliki: erroetan dagon
lizia norik Ken orai?

Salbinek hartu du bere kargua. Ez da
ohore gose, baina Lortuariaren omena nahi du
gora atxiki. Zer oren kiretoak ez ditu iragan
Bilbo-ko Biltzarrean! Biltzarreko lenda-
kariak (president) ez ~~guz~~ ^{du} uzten mintzatze-
rat ere. Behin auzitegira deitzen dute,
deputatu hainitz zuzen kontra hautatuak
izan direla erron duela koto.

Bekarririk izateak ondorio hitz frango
dakarrika, baina laster Salinen bozkat
izanen ditu lagunak. Bazterrak nola ez
dituzte inarrosiko orduan!

Boz-emailen ukaitako, abertzaletasune
behar da orotan hedatu. Xede hori berriaz
Salbinek agerrarauten du egunkari bat
1899ko Berruilaran 15an. "El correo vasco"
deitu berriketaria izan da lehenbiziko
egunkari eskualduna. #

Hainitzek bitzenan diote laquntza
duinuz eta lanuz, baina guzien buruan
deus ez! Salbinek eta Koldobirikak gaitzeko
diruketa xahutzen dute lan hortan, eta
artikulu gehienak beren gain dituzte. Gau
eta egun idazten ari da Salin: berek behar
dute egon irarkolan hutsen xuxentzeko.
Lori'k ere ez dute egiten: lebertuak dira.

A, gogotik utz ezakete lan hori: dituz-
ten ontasunekin gozuan bizitzen ahal
bitazke. Baina Aberria? Horentzat ger ez
dute jasanen ixil-ixila!

Azkenean, ezin gehiago iraunez, 1899ko
Berruilaran 15an gelditzen dute beren apartaria.
103 aldiz agertu da beraz eskualdun ^{edun} lehen
~~agertu~~ egunkaria. Lehen urratsa egin du
Salbinek: geroztik zenbat egunkari eskual-
dun ez da agertu, Salinen gozua hedatu

bitute Euzkadi-ko mendi xokoetaraino!

Beste molde bat ere asmatzen du Sabinek lagunen biltzeko. 1899^{an} beste batasun bat moldatzen du. "Centro vasco" emaiten dio izena, Españolek ez dezaten bereala begietan har. Besta haundiak egiten dituzte Begetan ^{lib-topiarum} ~~etxe~~ idokitzeko egunean.

Betram hortin Katolikoek sartuko dira bakarrak: jostatzeko toki bat izanen da "Centro vasco" delako "Euzko-etxea".

Bereala gaitzeko gizon andama sartzen da ~~delako~~ ^{berrian} batasunean. Buruzagi guziak abertzaleak dira. Sabinek uske du molde horri jarraituz orerkiago bilduko dituela eskualdun suharak. Azpiz, alegia eta deus ez, gaitzeko lana egin gogo du fede onekoetan. Batasunean sartu baitira frango jostatzeko xedearekin bakarrak, dupin eskalgi ederrak izanen dira Sabinean lanaren gordetzeko!...

Eskual etxea ez da beraz politika etxe bat banian josteta toki bat: molde horri politikak ez du aranzuratzerik... Abertzaleak, politikak — politikak, beren egitate eta eloz bilduko dituzte

26
beren lagunak: Sabinek galdogiten diote beraz izan dituen guzietan probarenak eta adixkide goxoerak. Alabainan uli gehiago biltzen du zitiak ezin ez eta ozipinak...

Ez duge erraiteren beharrik Sabinean lan horiek ez diela debaldetan. Emeki — emeki Eskualdunen bihotzetan pigtuduen sua haunditzen ari da eta keclatzen. Zer loria Sabinentzat oharitzen delarik ~~no~~ nolabait urrundik bederen jarraititzen zaiola!... Zoni gogotik aharntzen dituz ^{orduan} bere nahigabeak! Zer eskerrak haren lana benedikata duen Jaun Goikoari!

XI
Sabinen ezkontza.

Lan haundi horien ondotik, ixiltasunari eman zen Sabiri: 1900^{an} egkonde beharra zu, eta ezkontzari buruz nahi zuen apaindu bere

izate guzia. Emazte-gaia: Nikolasa Atrikallende eta Iturri. Ez zen ez aberatsa, bainan bai egizko eskualduna eta bertute handikoa. Salinek ez zuen uste zaku beharrik: barnea maite zuen lagun bat zuen bilatzen.

1900ko Asteilaren 2^{na} ezkondu zen beraz, ~~ostia~~ ^{ostia} galearekin. Lukarrietan egin zen bazkaria. Ojakal eta bereala, oron bat eta orditun, ~~txerria~~ ^{txerria} Lurdeko bidari lotu ziren senar-emazteak. Egun saindu hori ez zuten dantza zalapartetan iragan nahi: Ama Birjinari nahi zioten ~~eskaint~~ eskaini beren lizi berria.

Lurden biak eritu ziren: Salin bereziki azkarki funkitua izan zen. Lukarrietan nahi-sia zalapartean guziz, eta arrangurarekin etxeokk etorri zitzaizkon ikustera.

Saldatzerat zoralaniki, Koldobika jaunzen botzaritzera bere emaztea eta semearekin. Ontatu bezain laster, Salin ere jarraituki zitzaion Nikolasarekin. Bi etxetan behar zuten lizi: "Etxeparia"-n eta "Hiriart-etxia"-n. Zonbait egun han iragan ondoren osagarria azkartu arte, lotu ziren berriaz beren ezteietan.

27
ko piziorri.

Geru Lukarrietan-n egin zuten beren egotza. Handik jaiten zen Salin Diboko buruzagien biltzarrera: bere deputatugoa ez zuen gutietan nahi.

Beraz ezkondu ondoan lehen pizia Lurderat egin zuen Salinek. Biziki maite zuen Ama Birjina. Harpe sainduko bakarrean frantsatzen zuen bere gozoa, eta han zituen biltzen hasi lanaren bururatzeko indarrak.

~ Polaz ez dute maitatuko Eskualdunek Lurdeko Ama Birjina? Gure arbasoek, buruzagien biltzar batean ez ote zuten zin egin, Ama Birjina notarik gabe Kontzebituaren alde agertzea beti eta orotan, eta hori, Elizak egia hori sinestekotzat aipatu baino lehen?

Geruzatik Handik laster zaindaritzat hartu behar zuen Eskualdun Gasteriak Maria bekaturik gabe Kontzebitua.

Salin ezkondu eta laster, 1904ko martxoan agertu zen aldizkari (rene) bat guziz ederra: "Euzkadi". Eskual-Herriko jakintza mota guziaz nahi zuen mintzatu.

Zorigaitzez laguntza guti ukatu zuen agerkeri horrek. Hiru ilabetarik agertzean zen "Euzkide", baina lau aldiz bainik ez zen atera. Azken Larriaga-ko presoondegian moldatu zuen Salinsek, 1902^{an}. Geroxago ikusiko dugun nolaz hartua izan zen preso.

Salinsek zuen oraino amor eman nahi. 1904^{ko} Abuziaren 27^{an} artekari bat moldatu zuen: "La Patria" edo "Aberria". Agerkeri horren zuten hobekienik argitu abertzaleak. Laster hedatu zen "La Patria" Euzkaldun-herriko xoko tipografiaraino: poliki-poliki ezagutzen ari zuten Euzkaldunen begien aintzineko lanua.

53 artikulu egin zituen Salinsek. Lerro horietan da hobekienik ageri zer kasoko gizona zen Salin. Erlijioarez, filosofiaz, denetaz ezin ederkiago mintzo da, bere mihia z xortua ere ateratzen duela artetan eta cin azpiratzeko.

Etaiak erakia go-gorrean zauden Salinen lanak ikusiz. 1902^{ko} Maiatzaren 2^{an} espainol gudariek egin zuten bere us-uriko ibilera (defila). "Euzkaldun-herria" heldu zirenean

ohartu ziren leio batetik dibindan zaxola eskualdun ikurrina dolaan. Bereala buruari eman zuten leietaz irri egiteko asmatu zutela jokoa hori abertzaleek. Horak erotirik sartu ziren etxean, eta beren ezpatekin atzeman guziak xintzekatu zituzten...

Alta ez ziren trufa gose abertzaleak. Beren lagun bat geldu zutelakotz zuten dolotan ikurrina, betiko oitura zen bezala. Baina Espainolen basakeriak bere bidea egin behar zuen.

37 urte zituen orduan Salinsek, eta jende xahar bat sekuri zuen hain zen higitua. Dinazak lehertua zautkan, baina atsegabeen zuhurtzia ere bildu zuen. Guduak gehartu zuen gudarria, baina harrak xorroxtu eta ontu zitokan. Gorpuzte ahuldu bezala azkartuz Joan Salinen gozosa: jorigaitzez argiak ez dezake irun erretzekorik gabe, eta laster suntaizten ari ziren Salinen olio xortak... Gudua z gure halere utzi!!! bere bizia eskainia gure herriaren bizirikentzat. Hartu xedea z gure ukatua nahi? Zer den ahatik maitasunaren indarra!...

Reprise

XII

Salin eta Roosevelt.

Lehenago "Cuba" Espainiako Kolonia bat zen. Hango jendeak aseak ziren aspaldian uztaurri dorpe hortaz. Amerikanoek kendu zioten Espainioler delako lur-aldea, eta 1902^a hartze zuten azkatasuna eman zioten Kubatariari. Hain luzaz ~~errotzean~~ zangopean bizi izan ondoren, zer gozoa bere buruaren jabe izatea!...

Berri hori jakin orduko, Salinek goraomenegoko telegrama bat igorri zion Roosevelt, Ameriketako orduko Lenda Kariari (president), erantziz: « Eskualdun abertzaleen alderdiaren izenean, Cuba-ri bere azkatasuna eman diez diolako, goretan dut zu Lenda Karitzat hartu zaituen erresuma. Zuen legerri (edo latorri: etate) boteratsuek zer etsenplua emak dantuten holako bihotz ona erakutsiz! Goraki agertu dira zuzentasunaren eta azkatasunaren alde. Bork Kausi holako etsenplu bat E-desti guzian! Baina Europako gobernuak, eta bereziki latin-herniatakoak, z gauzkitze

29

jarraituko. Europak zuek bezala egiten balu, Eskual-Herria ere, jopuluetan zaharrena den jendetze (edo gizadi) hau ere, hain luzaz mendeak eta mendeak Amerikak berak goretai dituen lege batzueri jarraituz bere azkatasuna begiratu zuen ~~ti~~ Herri hau ere azke lateke. »

Espainiako gobernuak geldiarazi zuen telegrama, eta Salin preso hartu zuten. Etsaiaik ez ziren urritutu haren ozagarri berrestaz. Lur eguz 8.000 sinadura bildu ziren presondegitik ateratzearen galdatzeko: oro de baldetan.

Azkenean tribunalerara deitu fundexhe andana batek azkatzea galdegin zuen, eta 1902^{ko} Hazilaren 8^a atara zen Salin espetxetik. Bost ilabete iragan zituen beraz preso-tribunalean, Daniel Truxo, orainko ministro eskualdunaren aitak zaindu zuen Salin.

Beraz espainol gobernuaren nahia baino lehen azarri guten zuzena ~~ti~~ anzilegira deitu gizonetik. Salin ez zen hobendun legearen aralera beraz azkatasuna hartze

zuen. Alta Espatolek gogotik hien zuten
Eskualdun guziak biltzen ari zituen axeria.
Pikabea, deputatu eskualdunak, galdegin zion
Moret Madrilko diputat ministroen lenda.
Kaniari (president) Salminen azkatzea. Eta
per zion uherdetsi Moret-ek? «Bihotz
gehiago erakutsaiko du giltzapean hilez. Espai
niarum trankiltasunak ez ote du gizon baten
bizia behar?»

Lehenago ere juduen apez nousiak aragoian
bera emon zuen Jesusen hilarazteko...

Larrinagaren preso zagalarik moldatu zuen
Salinek euzko abendaren ereserkia (hymne
national) "Gora ta gora Euzkadi". Abertza-
letasunaren bilduma da Kantu hori. Negurtu
zuen "Ikurrin dantza" ren arieon alesteke
(hapter). Eskualdun besta batean ikusi zuen
espata-dantza emaiten, eta biziki gustatu
zitzaien aie hori. Eta nola orduan hiltzorat
haitzoum gaur orotan ezagutua den dantza
hori (Salinen denboran Larrin dantzari andana
ziren bakarrak Bizkaitan...), nahi izan zuen
aiea bederen geroari utzi. Zabalera tar

Kletok apaindu zuen aiea, eta gerostik Kantu
hori hantatua izan da euzko abendaren
ereserkitzat (comme hymne du pays basque)
Salin hil eta laster. Hura Biztak:

Gora ta gora Euzkadi!
Aintza (gloire) ta aintza Bere Goiko Jaun onari.

Areitx bat Bizkaiaren da
Zor (anxi) ^{arri} ^{sendo} ^{zindo} (fideli), berri ta berri lagija lakua (comme
na lori)
Areitx gainian dogin gurutzta deuna (rima) beltz zeure
[Goiburua (dame)].

Abertza (chants) gora Euzkadi!
Aintza ta aintza Bere Goiko Jaun onari.

Eskualdun zintzo guziak jakin behar
lukete ereserki hori.

Preso ondegitik atera eta beresla Sukarri-
etara juan zen Salin, eta handik Zestonako
huetarat. Legearen arabera azkatua izan
balibagen, Gobernadoreak ez zion barkatua:
gizon batza izorri zioKen berri ziltza-
juan sortzeko. Orduan Salinek babil-bi-
dea hartu zuen Zumarraga-n Alonsa-n i biaz
Goro, Izpizzen napatarra lagun, juan zen muga

aldara behenik Karrosan gero oinez. Aurritzen eta Orreagan baina Arnegi-ra jentoi zen 1902^{ko} Hazilaren 30^{an}: bot oren bidexx egin zituen oinez auria jentoi ahala ari zela. ~~Son~~ Beharrik hotzari, ilunari eta Kurritzeari jaurria baitzen ihizgin ibiliz!

Gero Donibane Lohitzunen Kokatu zen "Lybain de Arbeste" izenarekin. Bere biziam behinere ez zen ~~hau~~ orduan bezanbat aspertu: ez zakiem zer egin. Zer bihozmina bereziki emagtearen ganik urrun izatea! Halere osoki Jaiakoaren nahian dago.

1902^{ko} Hazilaren 20^{an} iragan zuen beraz Labinek laster Eskualdun epizkoen bihotzean ezeztatu behar zuen muga. Ordu arte suge luze bat bezala zagon muga hori, Eskualdunak berexi nahiz: Labinek ~~#~~ lebertu zion burua abertzaletasuna hedatuz. A, izanen dira oraino Eskualdun arnegatu etlo jakitate gabeko batzu, muga ikusi eta, beren anaiak errotz batzuentzat hartuko dituztenak, bainan abertzaleentz bihotzarentzat ez da mugarik: gizonen lanak ez dio ahantzarezetan Jaiakoak Eskualdunak Eskualdun egin

dituela, eta ez duela uztaari berexak behia mandotzen! Tede oneko gizonak nola ukka dituzke egia horiek? Ala Labinek bezala galdegin ~~ete~~ ^{ete} behar dugu hori ~~hori~~ ^{hori} bakan ote diren Eskual-Herriari bihotz onekoak!...

1903^{ko} Urtarrilean Lukarrieta-ra itzuli zen biziki erri. Bere aurpegi zurpailak heriotzearen itzala salatzen zuen. Ez duen batetik nekatzten zuen hain zaila izan zen gizona. Indarrak arizitatzeko jualten.

Bainan gogo-a beti azkar zuen eta izpiritua zorrotz. Ez zen segur burutik mainzutzun hasia. Zer lanak ez zituen erabili bozketan Angel de Zabala-ren alde ~~Peta~~ "Patria" astekarion Eskual-Herriaren alde!

1903^{ko} Jorralan ~~teatro~~ teatro lan bat moldatu zuen: "Libe". Bestroa ez zuen maite Jesus Kafi bat delakotz, bainan Aberriaren onetan zer ez zuen eginen? Dinazera gatik xutik idatzi zuen oso-oso. Batamakako min ~~tan~~ batetik xelatzten zuen, bainan Aberriaren maitasunak emaiten ziotzen behar zituen indarrak. Zonbat ez dira behenago lotatzen azkar eta sendo direlarik!...

XIII
Sabin españoltzen?

Orain zaharrak dio: "Zahartzerak zapatan".
Gazte eta azkar zireno Elizaren aiker agertu
ondoren, hainitzak apuz galdy oihuka entzu-
ten dira herioaren hatsa senditzen diute-
lorrik. Zorbaitek diote Sabin ere lain
estualdun suhar izan ondoren bere
bizien, azken mementoetan urrikirik lagtu
zuela, eta bere bihotza beriz eskaini ziola
Espainiari. Ibi hitzuz erromen duqu zer
iragan zen.

1902ko Ekainaren 28^{an} goia: "Patria" deitu
astekariaren agertu diren lehen batzuek zer asal-
dura ez dute pitzaragi Euzkadin eta
Espainian? Berririketariak emaiten du diotela
Ararra Jorri euzko abertzaleen alderdiaren
egileak ez duela gehiago nehor abertzaleta-
sunerat deituko: artamendatzen diotela herri-
tarrak jar dituen osoki Espainiaren meneko:
beste alderdi bat behar dela moldatu, estu-
aldun eta español izanen dena. Zorbaitek
diote ere Sabin español, eta gehiago dena.

32
españoltiar bilakatu dela...

Zer harritzea abertzaleen artean! Zer
zoriona etsaieratzat!

Bereala Sabinetik gaztizatzen du berrike-
tarian ez dela ez español ez eta españoltiar.
Moldatu duen alderdiak hil behar babin-ba-
du, bera ere harekin batean hilen da.

Bainan beste alderdi bat nahi du
moldatu. Denek segi dezatela itautuki.
Berak daki zer ari den eta kaskoan duena
ez dezake oraino sala guziera. Izaitketz
ere 4 edo 5 abertzale segurrer agalduko
du bere xedea.

Bestalde bere amaia Koldobikari idazten
dizka hitz hauek: "Haste ene oinaze haun-
dienak! Españoltiar behar duqu agertu...
Galdegiten dut fidantza osoa izan dezaten
denek ene baitan."

Ez da ahuleziag mintzo Sabin: berak
daki zer ari den. Jendeen artean duen omnia
gogotik galduko du: adixkide hainitzek ukio
eginen diote: etsaiek burua goratuko dute:
bainan horiek guziak Aberriaren onitan
aterako dira, asmatu duen xedea obratzen

balin-badu...


Zer ote zen xede hori? Nehortz ez dakit:
handik laster herioak egun behar zuen bere
lana, eta Sabiri hobian sartu zen bere sege-
retuarekin... Guk dakiguna da 1903^{ko} Maiat-
zeren 10^{an} berak diola abertzale gutiz gehie-
netik beren fidantza eman diotela.

Hitz batz, alderdia behar zuen utzi gonbaiz
denboraz Aberriaren onetan: politikak behar
zuen ixildurixtat bat, odolala ukatu gabe
ahatik.

1903^{ko} Maiatzeren 10^{an} aipatu zuen azken
aldiko^{tz} xede hori Sabinek: ordum utzi
ote zuen batzonerat? Ala herioa hurbiltzen
ari zitzaizola ikusiz, berak ez obratze^{ko}tz nahi-
ago izan ote zuen bere segetua hobirat
beretikian ereman? Ez dakigu.

Dena den, egun horietan landa nehortz
ez du aipatu berri^{tz} xede horren obratzerik.
Errom dezagun beraz Sabiri beti euzko abertzale
egon dela. Aberriaren onetan lan-molde berri
bat baguen asmaturik, nehortz ez baitakiti
nolakoa zitalaken, berrin ez du ukatu errix-
tasunik edo astirik bere gogozaren obratze^{ko}.

Laido handia litake erraitoa, herioa
hurbilduz bezala Sabiri espanioltar bilakatu
dela.



XIV

~~Sabinek azken egunak.~~

Sabinek heriotzea.

38 urte ditu Sabinek. Hiltzerat doa: badakite
Bere bizia nahi dio Jaunkoari eskaini Aberri
maitea pitz dadin.

1903^{ko} Hazilaren 22^{an} herioak laster gogortu
behar duen eskuarekin, Koldobikari idazten
diogha azken lerro hauk:

« Nere anai maitea,

Bizkar, eguerdi aintzinean, azken aldiko^{tz}
hartuko dut nere Jauna, eta ukamen gantzadura
paindua. Medikunak hola nahi du, beldur
baita alditxarte edo omazegko zalaparta
batzuek laster bizigabetuko naitela. Zaur
bururatu dut hiru egun^{tz}, 13 urte^{tz}, uran nahi

Baita 25 urtetarik humat, egin huts guzian aitormena:
Forma Frantseskanoen buruzagia nuen aitornarazle.
Nere arime guzia Jainkoari emaiten diot, galdegiten
baderant; zer egun haundia bikar, lehen jaunmar-
tzeko (Communio) eguna baino haundia goa!

Ez dakit nola erakutsi nere ezagutza Jainkoari,
nere heriotzeari, honi aintzinetik abisatu naualakotz,
zeren eta haragia ezul baita, bainan gogoia oso
oraino.

Kontsola hedatu nere emaztea; gorroto beza Jain-
koa, eta bere egin ahala egin dituala zeruaren
inbartzeko: molde hortan lietik elgarretsin gore-
taiko dugun Jainkoa zerruen.

Bate dut Jesukristo nere Grosleak bere mere-
zimenduez bakisaziko nauela nere salbamem-
dua egin dezaten.


Jkusi nahi babilin. banazun, aste dut orai
bezagatun Kansituko nauzula helduden astean;
omazgiko zalapartak ez jakirik orains lotuko.

Nere gutiziarik hoberenak zuri eta Mariari,
eta potetik amultuametak nere aldetik zure laur. haurren,
Agur.
Salbis.

Zer fedea erakusten duen Salbinen asken
estuntitz hortan! Zer fidantzia herioaren
aintzinean. Bere izi guzia guduon iragan
du Jainkoaren eta Eskual-herriaren alde:
nolaz ez du ukamen betiereko paria?

Bere betatuak aitortu eta, meza entzuten
du gelan berean: gero Kartotasun haundienean
bihotzeratzen du bere izi guziko goiburua
(devise) Zuan den Jauna.

Hil aintzinean badu halako zimiko bat
Konziientzian. Aberriaren onetan gastatu duen
diruketa ez ote da zuzen kontra edo bederen
debaldeetan xabutea izan? Apezak erraiten dio
ezte, ez duela deus aranzuratzarik. Orduan
brakte osoan dago Salbin, eta 1903ko Hezilearen
25^{en} egit. egitar pausatzen da...



XV

Eskual-herriaren pitxtea.

Eta huna Salbinen elortzeko eguna. Zer
jende otea! Aberatsak, jakintsunak, behardunak,
langileak, denak nahes. mahas, denak anai!

Guziek nahi diote beren azken agurra ekarri beren argizaleari: denek nahi dute otortz bat ziginarazi zernetako gakoak dituen Jannari.

Bainan egun hori ez da bakarrik ehorz- teko eguna. Hitz Labinek bere Sorterria pitgarazi du. 20 urtez zer lanak ez ditu erabili gizon horrek Aberriaren onetan! Hitz- rat zorn Eskual-Herria. Atzerritar batzu giren bakarrak gure bizipiri ~~ate~~ atxikiak: Lurien Bonaparte, Humboldt, Lihucharst, Wolkenbert eta holako. Eskualdun edertia zokoa zagon: arrotzema zen bakarrak kristen, ekukoa izan balitz bezala. Eskualdun jaungiak, obidurak, legeak, mintzaira, denak galtzerat zoazin...

Orai bada besterik. Gizon bat agertu da. Bere bizia eman du Herriarentzat. Bere ontasunak, bere adixkideak, bere goxotasuna, bere ozagarrria, denak galdu ditu, bainan du Aberria berri fitzu.

Orai zer lanak Eskual-Herrian! Idegileek xoroxtu dute berri, Kamusturik zankaten luma Olerkariak lotu dia berri bere Kopleri, gogoa- ren bete hitz egin aurkituz. Eskual-Herriko xoko guzietan, zer jaungiak, zer kantuarak!

Hitz batez, Labinek Eskualdunjoaren iturria bere du garbitu eta itotzen ari zuten laparretarik azkatu.

1904^{ko} Urtarrilaren 3^{an}, hura Bilbo-ko gazteria elgarretaratua lanean aritako Eugkadiarentzat.

1907^{ko} Uztailaren 14^{an} hura azkatasunaren beste.

1909^{an} moldatzen dute "Mundigoizaleen batasuna".

1909^{an} orain, berri moldatzen dute Bizkaian eugko abertzaleen alderdia, Koldoberra luru.

1909^{ko} Urtarrilaren 10^{an}, Arabierako Mikel anizerna hartzen dute Eugkadiko gaindaritzat.

1910^{an} eta 1911^{an} abertzaleen leialak Lurdera.

1923^{ko} Ekainaren 25^{an}, 20.000 abertzaleek zaitzako bilkura egiten dute Labinen hil-hobieren inguruan.

1933^{an} 10.000 abertzale igaiten dia Arabierara.

1932^{an} hasi dia urte guziz bagko eguna-

rekin egiten diene "Aberri-eguna"-k (Jour de la Patrie).

1932^{an} Bilbon, 1933^{an} Donostian,

1934^{an} gazteituzen, 1935^{an} Lurien. Zer bestak!

Milaka eta milaka her dia abertzaleak, Labinek pitgarazi dioten Karrak erretzen diotela bihotza.

Bainan 1936^{an} hura gerla izigarri bat, anaien arteko gerla! Herria generala altxatela

zuzenezko gobernu. auritiki nahiz. Orain
ere Español batzar nahasleek enganatu dituzte
naparter Karlista gaixoak. Urtz Jaikoaren
eta Eskualdun zuzenen alde ari diren gu-
dun, Francoren aldekoa hartu dute. Aber-
tzaleak nasaiki dia Naparriean, bainan zer
egin Truñia español tropez beteak delarik?
Gipuzkoa eta Bizkoa bereala Francoren etsai
agertzen dira: y dute dena nahi Españolen
nahaskerietarik. Orduan Mola generalak
gauzi egiten du leien gainerat bere Karliste-
kin: eta huna nun xutitzen diren euzko gu-
doriak milaka Euzkadien zaintzeko.

Éz duqu haren kondatuko nolako izan
den gudu hori. Zer hiltzek! Zer bihozminak!
Laster Alemanak eta Italiakoak sartzen dira
Espainian. Eskualdunak errausten dituzte
gudu izigarni batzuen ondortik. Orduan
zuten ezagutu Gernika, milaka jendeak
urrez bere airekoekin.

Bainan ondorio oriki ere izan du gerta-
horiek. Zer nahi hitzeman ondoan, Francok
Kendu diozkatte Naparriean zituzten zuzen
bakarrak. Hamizte begiak idotki dituzte

ikusiz gertako arizan ariren guduan...
Bestalde gerta denboran da moldatu
Euzkadi-ko lehen gobernu. Espainiako
deputatuaren garbarak onartu ~~dute~~ ^{dute} aspal-
dian Eskualdunak galdatzen zuten araudia
(le statut d'autonomie). Jose Antonio de
Aguirre lantatua izan da Leindakari (presi-
dent) gisa. Zer zoriona Gernikako arbola-
ren itzalean zui egiten duela rik Arba-
soek bezala, beti Eskualdunen ona bilatu-
ko duela !...

Gerlak zer egia du oraino? Abertzale
epelak agertu ditu, eta onak azkartu.
Orai denek badaukite norin gainera konda.
Bakarrak abertzaleek y lukete ahantzi beher,
Karlista gehienak ~~et~~ enganatuak izan
direla: atzo etsai balin-bezian, biker
anai izan behar dute.

Jadanik aipatu duge nola Francoti-
arrek eta Alemanek puntaitu zuten Gerni-
kako herria. Ahatik zerbait oso galditu
da: hura da Gernikako arbola. Inluri
du Jaikoak begiatua nahi izan duela
oraikusteko Eskual-herria ~~gert~~ bete bizi

dela, eta gora altxatuko duela azketaamoren
arbola!

Estual-Herria onazetan dago, bariam
orot Estirale Saindurin ondotik heldu
dela -Bazko. Jankto-ak ez ditu ahantzi
bere zerbitzariak leial egotzen ~~di~~ dire-
no beren ~~z~~ sineateari.

Bai, Salin hily pigtu da Estual-Herria!



~~Bigarren zatia~~

~~Arana-Goiri-ren gogoa.~~

